



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALBATZAREN EZ OHIKO BILKURA

Areson, 2016ko maiatzaren 30ean, eguerdiko 14:30etan eta Aresoko udal aretoan, ez ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2016/05/30

Ordua: 14:30

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Ur Alguero Chivite
M^a Asunción Arratibel Onsalo
Jon Gurrutxaga Etxeberria
Xabier Domingo Zubillaga Uranga
Javi Belaunzaran Mariezcurrena
Mikel Baraibar Garmendia

BERTARATU EZ DIRENAK

Eden Alguero Chivite

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko akten onespena.
- 2.- Aresoko herri guneko zoladuraren zatikako konponketa espedientearen onespena.
- 3.- 2016ko ekainaren 26ko hauteskunde mahairen osaketarako zozketa.
- 4.- Alkate Ebazpenen berrespena.

5.- Eskaera eta galderak.

6.- Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, eguerdiko 14:30 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako en quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Aurreko batzarretako akten onespena.

Aurreko bi batzarretako aktak alkatearengatik irakurriak dira eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2016ko martxoaren 16ko ohiko batzarreko akta eta 2016ko maiatzaren 11ko akta onartzea.

2.- Aresoko herri guneko zoladuraren zatikako konponketa espedientearen onspena.

Aresoko Alkateak espedientearen nondik norakoak azaltzen ditu.

Kontratuaren edukia zein den adierazten du, Aresoko herri guneko zoladuraren zatikako konponketa dela; lanak burutzeko epea bi hilekoa izanen dela zuinketa akta ematen den egunetik hasita eta Aresoko festak direla eta, zuinketa akta abuztuaren 18a baino lehen ezin izanen dela egin.

Lizitatzera aterako den lanen zenbatekoa 82.329,70 eurokoa BEZa barne dela.

Honetarako erabiliko den prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izanen dela.

Lizitatzeko gonbidapenetan zehaztuko dela noizko aukeztu beharko dituzten esleitzailleek proposamena.

Azalpenak entzunda eta behin espedienteaz aztertuta, bertaratutako denen adostasunez,



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

- 2.1.- Aresoko herri guneko zoladuraren zatikako konponketa espedientea onartzea.
- 2.2.- Ondorengo enpreseei gonbidapena luzatzea: Sasoi, Osés, Mariezcurrena, Ivan Pellejero, Apezetxea Anaiak, Elcarte, Lohitzune eta Tex.

3.- 2016ko ekainaren 26ko hauteskunde mahairen osaketarako zozketa.

CONOCE sistemaren bidez hauteskunde mahairen osaketarako zozketa eginda honako emaitza lortzen da:

MAHAIBURUA-----ALDUNTZIN SESTORAIN LOREA

1.MAHAIKIDEA-----TOLOSA GOIKOETXEA MARIA JESUS

2.MAHAIKIDEA-----OLANO PILDAIN JOSE IGNACIO

ORDEZKOAK:

1.MAHAIBURUARENA---ARRAYAGO BRAÑA IDOIA

2.MAHAIBURUARENA---VALERDI AGUIRRE ANGEL MARIA

1.MAHAIKIDEAREN 1.ORDEZKOA---ONSALO ERASO LORENZO MIGUEL

1.MAHAIKIDEAREN 2.ORDEZKOA---BARANDARAIN ALUSTIZA
FRANCISCO JAVIER

2.MAHAIKIDEAREN 1.ORDEZKOA---PELLEJERO ZABALETA ION

2.MAHAIKIDEAREN 2.ORDEZKOA---PELLEJERO ZABALETA IOSU

4.- Alkate Ebazpenen berrespena.

Alkateak azken boladan emandako ebazpenen berri ematen du eta zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

4.1.-16/2016-28/2016 Alkate Ebazpenak berrestea.

5-Eskaera eta galderak.

6.- Denetarik.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 15:15 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

